

Bezero Harremanak

StudyGoen gure bezeroen ongizatea prioritate nagusia da eta horregaitik harreman ona izateko bezeroekin pausu hauek haurtuko ditugu:



Bezeroak fidelizatzeko, doako eguneraketak, eduki erabilgarriak eta laguntza-zerbitzu azkarra eskainiko ditugu. Halaber, komunitate digital bat sortzeko ahalmena izango dute aplikazioaren barruan, batez ere sare sozialean, apunteak bidaltzeko, aurkezapenak elkarrekin egiteko...



Bezero berriak publizitatearen bidez lortuko ditugu, sare sozialetako kanpaineekin eta bilatzaileetako iragarkiekin. Horrez gain, hezkuntza-zentroekin hitzarmenak egingo ditugu gure aplikazioa ikasleen artean ezagutarazteko eta zuzenean haiengan eragiteko. Adibidez, TikTok-en publizitatea. Gainera, Publizitate fisikoan, kartelak, flyerrak eta stand-ak erabiliko ditugu ikastetxe, liburutegi eta hezkuntza-ekitaldietan, helburua ikasleak eta irakasleak zuzenean hurbiltzea eta aplikazioa ezagutzea da.

